



Fraide frantziskotarrak kantuan aritu ziren atzo, Arantzazuren ekarpena bultzatuko duen fundazio berriaren aurkezpen ekitaldian. JON URBE / ARCAZKI PRESS

Frantziskotarren osteko egunsentia

Arantzazuko kultur eta natur ondarea fundazio baten esku utziko dute fraide frantziskotarrak

EKAIN ROJO
Oñati

«Gugandik haratago iraungo duen Arantzazu prestatzen ari gara; gu ezkututzean ez dadila ezkutatu». Iñaki Beristain Arantzazuko fraide frantziskotarrarenak dira hitzok. Aizkorri mendikatearen magalean, Euskal Herriaren bihotzean, bost mende baino gehiago pasatu dituzte frantziskotarrek Arantzazun (Oñati, Gipuzkoa), eta amaiera hurbil dagoela nabari dute. Fraide belaunaldi gazteen gabeziak eta gaur egungo gizartean dagoen bokazio faltak amildu du, onartu dutenez, Arantzazun bizi izan duten egonaldi luzearen ilunabarra.

«Etorkizunean frantziskotarrek jarraitzen baldin badute, oso ongi, baina, bestela, Arantzazu txukun eta adierazgarria utzi nahi dugu». Gipuzkoan euren azkeneko gotorlekua izango dela onetsi dute, «bila datozen pertsonentzako topagunea». Beristainek azaldu du santu-

tegiaren eremua askotariko gunea bilakatu dela egun, baita espiritualtasunarentzat ere. Fededuna ez den jende askok Arantzazun aurkitu nahi du bizimoduaren duen gabezia. «Bizi-zentzua izan liteke, burua argitu nahia, eta, akaso, fedetik ihes egiteko ere». Jendea bere bidean laguntzea da fraideek norberari jarri dioten erronka. «Gure kezka ez da jendea elizara erakartzea».

Astegunetan Aizkorri magala bisitatzen dutenak hartzeko ere, Axolaz izeneko harrera lekua egin nahi dute. Horrez gain, sinesmenen eta giza izaeraren etikatik haratago, kultura eta natura ondare ere bada Arantzazu, eta nortasun hori hurrengo belaunaldiei ere laga nahi diete frantziskotarrek. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Oñatiko Udalarekin batera, Arantzazu bultzatuko duen fundazioa sortu dute. Orain arte fraideek soilik kudeatu dute, bost mendez, ingurua.

Atzoko sinaduraren bidez gauzatu zuten hitzarmena Markel Olano Gipuzkoako ahalduen nagusiak, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak eta Jose Maria Arregi Guridi Arantzazuko Frantziskotar Probintziako ministro probintzialak. Akordioari jarraiki, frantziskotarrek

Arantzazuko espiritualtasuna zuzentzen jarraituko dute; eta, kultur eta natur ekarpena, bestalde, fundazio berriaren eskuetan izango dira. Elkarrekin berria bi erakundeek eta frantziskotarrek partekatuko dute erdi bana. Horrela Arantzazuren nortasuna gorde nahi izan dutela zehaztu du Beristainek.

Arregiren hitzetan, «oso urrats garrantzitsua da fundazioaren sorrera». Espiritualtasunagatik aparte «hainbat arlotan Arantzazu oso altxor garrantzitsua» dela arrazoitu du, eta orokorrean bultzada emango diola aditzera eman du; «kulturan eta artean bide berriak lantzeko aukera izango da».

«Orain pozik gaude, ikusten du-

«Elizak eta kristautasunak jarraituko dute Arantzazun, baina agian ez da izango guk soinean dugun abituarekin»

PELLO ZABALA
FRAIDE FRANTZISKOTARRA

«Gugandik harago iraungo duen Arantzazu prestatzen ari gara; gu ezkututzean ez dadila ezkutatu»

IÑAKI BERISTAIN
FRAIDE FRANTZISKOTARRA

guna egoki samarra da, guk utzi dezakegun Arantzazuk lasaitasuna ematen digu». Pello Zabalaren aldarrian Arantzazuk etorkizunaren atea parez pare irekitzearen poza ageri da, baina bide malkartsua izan dela azaldu du. 1993. urtean jatorriko santutegi frantziskotarra egin zutela 500 urte betetzean beste norabide bat eman nahi zioten santutegiari, eta hamarkada bat igaro da borondateak fruituak eman dituen arte. «Arantzazuk borbor egin du, Baketik elkarguneak indarra eman dio eta lehen ez zuen garailera eta gaur egungo izaera bereganatu lezake». Aldi berean, fraideen iraupena murriztu dela dio.

PENTSAMOLDE ALDAKETA. Frantziskotarrek Arantzazun betikotu egingo direla pentsatzea «gaurko munduaren kontra joatea da», Zabalen irudiz. Etorkizunean bokazioa faltako dela agertu du eta Eliza beste era batean ari beharko dela gaineratu du, «askoz xumeagoa eta bertan egindakoa». Eliza garai berria onartzen ez baldin badu atzera geratuko dela dio, baina Donostiako eta Bizkaiko elizbarrutia aldi berriari so ari direla.

«Apaizik ez da egongo, baina apaizak baino hobeak edukiko di-

tuzte», agertu du irria ahoan, dioenez sinestun ordea. Gipuzkoan eta Euskal Herrian oro har aldaketa aro sakona izango dela iragarri du eta horren bidetik Arantzazun ez dela fraiderik izango uste du. «Gaurko Elizan, ez Erromakoan, ezin da bizi gu bizi ginen bezala, komentu handi batean. Zertarako jendearekin batera bizi ez bazara?». Dena den, santutegiaren inguruan kristautasunak zeresana izango duela esan du: «Elizak eta kristautasunak jarraituko dute eta presentzia izango dute Arantzazun betiere, baina agian ez da izango soinean ditugun moduko abituarekin».

200 fraide bizi dira orain santutegian eta, Arregiren esanetan, urte dezentetan mantenduko da frantziskotarren eginbidea: «Guri dagokiguna da gu geu gauden artean ongi kudeatu eta bide berriak bultzatzea». Arantzazu Gipuzkoaren eta Euskal Herriaren erdian egonda, jendearen zerbitzura gertu egoteko aukera dutela erabartzen du. Hain zuzen, hori da hiru mintzaidetza nabarmenak duten abadeen ekarpena. «Fededunei eskaini ahal dieguna frantziskotar bizitza eta espiritualtasuna da; eta sinestene ez dutenei beste bide batzuk ireki, beste pentsaera bat».

Espiritualtasunari «oso garrantzitsua» irizti dio Beristainek, eta bilaketa askotariko eremueta murgiltzen dela gehitu dio Arregi: naturan, kulturen eta etikan, besteak beste. Horien guztien elkargune da santutegia, naturaren handitasunean kokatua eta euskal kulturaren ezin ahaztuzko agerbidea. Markel Olano Gipuzkoako ahalduen nagusiak Arantzazuko euskararen batasunean izandako parte-hartzea goraitu du.

Gipuzkoako Aldundiak eta Oñatiko Udalak aldiro luzatuko duten diru laguntza hitzartu baino lehenago luzaroan eske lanean lortutako diruaren fruitu izan dira Arantzazuko berrikuntza asko. Hala, Gipuzkoako osoan abade frantziskotarrek bildutakoa Arantzazura emana izan da hein batean. «Ondo egongo da, gizarteari zerbitzu bat eskaintzeko balio izan badu».

Lau urteren buruan atzo egindako hitzarmenaren lehenengo fruituak igartzea da frantziskotarren desioa; 2011 arteko indarraldia du hitzarmenak, izan ere. Birtartean, beren ondorengo Arantzazuren geroa irudikatuko dute.


Azkoitiko Udala

IRAGARKIA

2007ko abenduaren 14ko Alkatetza Dekretu bitartez, 14 sektore den, Ugarte-Igararen 1 E.U.aren Birpartelazio Proiektuari hasierako onepena eman zitzaion.

Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzorari eta Hirigintzari buruzko Euskal Herriko Legearen 43. artala diotari jarraituz, proiektua jendaurrean uzten da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, hurrengo 20 egunetan nahi diren erreklamazioak eta oharak egin eta aurkeztu ahal izateko.

Azkoitian, 2007ko abenduaren 19an
ALKATEAK



Elkarrizketa digitalak BERRIA.INFOn

Gaur, abenduaren 20a, 18:30ean

Aitor Mendiluze,

2007ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako txapelduna

zuzenean zure galderei erantzuteko prest.

Aldez aurretik honako helbide honetara

bidal ditzakezu galderak:

elkarrizketa@berria.info

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**